

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sarrigurengo Félix Garrido zentroak lehen erabiltzaileak hartuko ditu datorren ostegunean

*Torres kontseilariak bertako instalazioak bisitatu ditu gaur, 90 pertsona hartzeko eginda dagoena: 25 Zahar Egoitzan eta 65 Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroan*

Lunes, 12 de marzo de 2012

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilari Elena Torres Mirandak Sarrigurengo Félix Garrido Zahar Egoitza eta Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroko instalazioak bisitatu ditu gaur, eta datorren ostegunean lehen erabiltzaileak hartuko ditu. Zentroa Eguesko Udalak Nafarroako Gobernuari lagatako 2.827 m<sup>2</sup>-ko lursail batean dago, eta Nafarroa 2012 Planaren 4,5 milio euroko inbertsioa jaso du.



Kontseilaria (eskuinean) eta Sarrigurengo Félix Garrido Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroko langileak, zentroko instalazioetan.

Eraikina autonomia pertsonal eta sozialeko esparruren batean defizita duten buruko gaixotasun kronikodun 90 pertsona artatzeko diseinatu zen, eta beren errehabilitazio-prozesuagatik errekurtso-mota horien zerbitzuak eskatzen duena. Zehazki, zahar-egoitzan 26 erabiltzaile sartzen dira, eta errehabilitazio-zentroan 65entzako lekua dago: 30 eguneko arretan eta 35 arreta anbulatorioan. Nafarroan dagoen era honetako lehen baliabidea da.

Félix Garrido Zahar Egoitzan 26 erabiltzailerentzako lekua dago, gela independenteetan: 25entzako lekua eta beste leku bat, larrialdi-kasuetarako. Torres kontseilariak adierazi duenez, baliabide honekin ostatu, mantenu eta euskarriko oinarrizko beharrak ziurtatzen dira, utzikeria eta bazterketako egoerako saihestuz.

## Errehabilitazio

Psikosozialeko Zentroa, berriz, buru-nahasmendu larria dutenentzat da. Bertan ematen den arretaren helburua, ingurune sozialean ahalik eta integrazio handiena bilatzea da, pertsona horiei beren

ingurunean bizi-baldintza normalizatueta bizitzeko aukera emanez, eta horrekin talde horren instituzionalizazioa saihestuz. 65 lagunentzako lekua du: 30 eguneko arretan eta 35 arreta ambulatorioan.



Segizioa zentroko gimnasioan.

Proiektua Jaime Gaztelu Quijano eta Ana Fernández de Mendía arkitektoek egin dute, eta obra Jaime Gaztelu eta haren taldeak zuzendu dute. Aldiz, eraikuntza Nafarroako Obra Bereziak (Obenasa) enpresak burutu du.

Félix Garrido Zahar Egoitza eta Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroaren kudeaketa AVANVIDA enpresari esleitu zaio 2012ko abenduaren 31 arte, eta aldi hori gehienez ere lau urtez luza daiteke, Kontratu Publikoen 6/2006 Foru Legeak ezartzen duenez. Esleitutako moduluak honako hauek dira (BEZ barne); hilean 779 euro eguneko zentroko leku bat okupatzeagatik; eta hilean 19.100 euro Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroko (CRPS) programengatik.

### **Egoitzako arreta**

Egoitzako arretako zerbitzuaren intentsitate eta jardueren barnean honako hauek sartzen dira, esparru orokorreko gizarte-zerbitzuen sailaren arabera:

- Ostatu hartzea
- Mantenua: Egunean 5 otordu.
- Laguntza eta ikuskaritza eguneko bizimoduko jardueretan: egunero.
- Arreta soziala: jarraipeneko lau hilean behin.
- Arreta psikologiko/psikopedagogikoa: jarraipeneko sei hilean behin.
- Psikoestimulazio integrala: astero.
- Trebezia sozialak eta erkidegoan integratzea: astero.
- Aisialdi eta astialdiko jarduerak: astero.
- Laguntza familiei: jarraipeneko lau hilean behin.